

BA OTE DAUKAGU EUSKALDUNOK EUSKARA HUTSEAN BIZITZEKO ESKUBIDERIK?

Hizkuntzen bilakera historikoez arduratzen diren hizkuntzalari gahienek oso arriskutzat jotzen dute hizkuntza konkretu batek bizitza-eremu elebakarrik ez izatea. Halakorik gertatzen denean, hizkuntzak galbiderako aldasbehera hartu duela esan ohi dute.

Euskeraren kasuan, oso mekez aurki dezakegu gure artean, une honetan, elebakar den euskaldunik; gutxiago, oraindik, elebakartasunean, euskara hutsean bizi den lurralderik..

Horrek, euskarak azken urteotan gizarteko hainbat alorretan aurrerakada nabariak izan baditu ere (Irakaskuntzako urratsak, Euskal Telebista, Adinekoen euskalduntzea zein alfabetatzea, liburuen ugalketa, administrazioan emandako urratsak eta abar; ikus Deia, 1989.eko Urriaren 29ko orri bereziak), une honetan, adituen erizpidetan, kinka larrian aurkitzen dela ematen du aditzera.

Gaur egun ez dugu beharrezko, ezinbesteko euskara Euskal Herrian bizitzeko! Beraz, ez dago euskara ikasi beharrik ez eta, jagoten ingurugiro erdaldunen aurka arituz, jo eta ke, etengabeki saiatu beharrik! Erderek ditugu eguneroko bizitzan jaun eta jabe. Areagotu egiten da erderen nagusitasuna gizarteko goi mailetan.

Honako hau salatzen zuen Luis Mari Mujikak «Aberchalismo-Marginalidad del Euskara» izenburua zuela urte honetako Urriaren 27an Deian argitara emandako idazki gogorrean: Euskara,

«apaingarri», «errito» bihurturik eguneroko bizitzan guztiz baztertua izatea. Hain zuzen ere, Euskal Herrian biztanleriaren %37a euskaldun izan eta hauetarik %15ek, gutxienez, euskaraz bizitzearen aldeko apostua egina duten arren, gure politikariek, arduragabeki, bai Lege Biltzarrean, bai Batzar Nagusietan bai gainereko Ageriko aurkezpen gehienetan, «efikazia» atxakitzat hartuz zein euren «ezjakintasunaren» erruz, euskara alboko hizkuntza apaingarri huts bihurtzea. Hau ez dugula hain handikiro aldarrikatu ohi den «bilinguismoa» (elebitasuna), «kologuismo» (bazterreko hizkuntza) negargarria baino gogoratzen digu.

Zer esanik ez, egoera larriari itenbiderik bilatzekotan, euskarak atalka-atalka, hor-hemenka bereganatu dituen alorrak elkartu eta era ezberdinetako indarrak bilduz euskara hutsean bizi ahal izateko euskal guneak sortu beharra dugu. Eta hau, borondatea izanik, zenbaitek uste dutena baino errazagoa dela uste dut.

Frogabidetzat Urriaren 22an geuri gertatua aipatu nahi nizueke. Luis Baraiazarrari, aldizkari honetako idazleari, bertso-paperetan «Orixe» saria ematen ziotela eta Orexa-ra joa ginen. Bertan jendarrean izan ginen lau orduetan ez genuen erdararik entzun ez txikien ez nagusien artean. Bertako herritar guztiak euskara hutsean bizitzen ikustean nire txikitako Aramaioko auzoko bizitza etorri zitzaidan gogora! Honelako gune euskaldunak babestea zein sortzea oso garrantzitsua dugu euskararen bizitzarako zein garrantzitsua.

Aztergai dugun arazoaren nondik norakoa, beraz, horrelako udalerrri euskaldun hutsak babesteko zein bultzatzeko bideak egitean legoke. Hau da, euskara txoko-hizkuntza bihurtu gabe, oso-osoan indarberritzeko hizkuntz-gune aproposak egitean.

1. Udalerrri elebakarrak izendatzea:

Lehen eta behin, azken urte honetan gertatua ez dela bat-batean sortutako zerbait esan behar. Direla Hamabost bat urte hasi ziren zenbait udaletan euskarari administrazio barruan lekua egiteko ahaleginetan. Saiaketa ugari eta neketsuen ostean (itzultzaileak hartuz, udaleko euskarako zerbitzuak sortuz zein beste era askotara) euskarak bidea egin du, neke gorritan izan bada ere, hainbat udaletan.

Honetan, ezin ukatu, izan dute eraginik bai Euskararen Erabilerrako Legeak bai eta beraren babesean emaniko bestelako aginduak zein administrazioa euskalduntzeko sortutako taldeek ere. Hala ere, administrazio ofizialaren aldetik eginiko saiaketak euskara gaztelaren pareko egitera bultzatuak izan dira bakarrik.

Bide horrek ez ziola euskararen egoera larriari hainbat lekutan irtenbiderik ematen edo eta zerbait gehiago egiteko garaia heldu dela ohartuz, udal batzuk aurreragoko urratsa ematea erabaki zuten.

Horrela, igaz hasi eta, batez ere urte honetako hasieretan, Euskal Herrian Euskaraz taldeak eta lehendik euskarari udaleko harreman guztietan benetako lekua egin nahiean ari ziren zenbait udalek bultzaturik, biztanleen gehiengoa euskalduna duten hainbat udaletan administrazio-bizitza (udalak herritarrei eskaini beharreko guztiak: plenoko eztabaidak, aktak, iragarkiak, jakinarazpenak, jaietako egitarauak...) euskara hutsean egitearen aldeko proposamenak aurkeztu ziren.

Helburu nagusia edo bakarra, eguneroko bizitzan euskaldun ziren herritarrei administrazio alorreko bizitza ere euskaraz eskaintzea izan zen. Hain zuzen ere, teoria mailan Euskararen Erabilpenerako Legean onartzen dena (ez, oster, Konstituzioan, estatu barruko guztiok gaztelera nahitaez jakitera behartzen bait gaitu) eguneroko janari-edari bihurtzea baino ez zen. Euskarari, gure hizkuntza nazionalari, eta euskaldunoi aspaldidanik ukatu izan zaigun jatorrizko eskubidea, egiatan, eguneroko bizitzan onartzea edo!

2. Udaleko jarrera ezberdinak:

Aipaturiko euskararen aldeko proposamenak, udal ezberdinetan aurkeztua izan zenean, eztabaida eta kontraesan ugari sortu zuen.

a) Udal batzutan, burubero batzuren amets hutsa zela eta, besterik gabe ateak itxi zizkioten. Oraindik Frankoren gaietako egituretan dihardute erdara hutsean.

b) Beste zenbait udaletan, proposamenaren muina aztertu beharrean, zenbait atxakia jarri eta ezinezkotzat jo zuten, erdaldunak «diskriminatzen» zituela eta. Hala ere, ez diote irtenbiderik bilatu euskaldunek jasaten diharduten udalerrri barruko diskriminazioei. Polito, ezta?

c) Beste zenbaitetan, gutxienetan, euskararen aldeko apostua egin zuten horrek sortutako arazoak larriak baziren ere. Udalok, euskaldunontzat eredu gertatu dira, ahaleginduz gero euskara hutzean bizi gaitzkeela edo bizi beharko genukeela gogora ekartzen baitigute.

Udalerrian euskara hutzean bizitzeko erabakia hartu izan duten udalen artean, zenbaitek badituzte, kasuren batzutan, herritar erdaldunak ere eta, erabakiak erabaki, oraingoz, salbuespen gisa, kontutan izaten dituzte benetako arretaz. Hala ere, udal horiek ezinbestekotzat jo dute urrats hori ematea, bai administrazioa euskalduntzeko bai eta herritar euskaldunen eskubideak onartu eta aldarrikatuz Euskal Herri euskaldunaren aldeko burruka bizia-
gotzeko.

Nik, neuk ere zartada bizia hartu nuen Aramaioko udalak, Araban oraingorokorreen euskaldun dirauen udalerrri bakarra izanik, «erdaldunen diskriminazioa eta zinegotzien analfabetismoa» zirela bide halako proposamenari uko egitean.

Ageriko gutun baten bidez erantzuteko izan nintzen baina, azkenean, isilean geratu zen nire idazkia. Bertan, besterik beste, honakook gogoratzen nizkien:

«Behar bada, euskararen aldeko eskaria Erakunde publikoen bidez etorri beharrean, talde erreibindikatzaile batengadik heldu zaizuelako ez duzue behar adineko arretaz eta patxadaz aztertu. Emandako pausu hori emanda badago ere, herri horretako seme eta euskalzale naizenez, Aramaioko hizkuntza behinena euskara izan dadin neurriak hartzeko eskatzen dizuet. Hau da, edonori, Aramion, euskaraz bizi nahi izanez gero, diskriminatua izan gabe (erdaldunei ere, eurek izan diguten baino errespetu handiagoa izanez), hala egiteko aukera eskaintzea eta horretarako duen «berezko» eta «legezko» eskubidea oso-osoan udalak errespetatzea.

Bide batez gogoratu egiten dizuet, ez baldin badakizue, Euskararen Legearen eta beterezteko geroagoko Aginduen arabera, nahitaezkoa dela (une honetan egiten ez den bezala) Aramaio bezalako herri euskaldunetan, administrazio maila guztietan, egintza publiko zein pribatu guztietan euskara, behik behin, erabiltzea. Beraz, udal horrek, erabakiak geroago hartzeko utzi gabe, lehenbailehen bideak jarri behar ditu nahiz Aramaioko euskaldunak diskriminatuak ez izateko (agiri, paper eta gainerako harreman guztiak euskaraz eskainiz) nahiz kanpotarrak zein bertako erdaldunak euskalduntzeko plan zehatza egiteko.

Ageriko gutun honen bidez, bai, zuoi, nire herriko zinegotziori, bai eta Euskal Herriko gainerako udaletako zinegotzi euskaldun zairen guztiori (abertzale zairenori, jakina) euskararen aldeko neurri zabal, eraginkorrak hartzeko dei egin nahi dizuet euskara dugulako Euskal Herri osoaren lokarri, oinarri eta ezaugarri. («Gutun irekia Aramaioko zinegotziei», 1989.eko Otsailaren 15ean).

Halako erabakia hartzea tokian-tokiko egoeren arabera hartzea baldin bada ere, badu garrantzirik. Behar bada, udal batetan, gehiegiztat joko dute euskara hutsean ihardutea, baina hori ezin da atxakia izan, orain arte maiz gertatu izan den bezala, ezer ez egiteko edo eta gutxiago oraindik, euskaldunak erdara erabiltzera behartzeko. Eta hau, egunero gertatzen ari den zerbait dugu, horretarako nahikoa baita idazkariak, legeak-lege, euskararik ez jakitea.

3. Udalerri elebar izendatzearen garrantzia

Udal harremanak euskara hutsean egiteko erabakia hartutako hainbat udalek bide horretatik ekin diote zenbait urrats berriri bideak eginez. Besterik beste, bi azpimarratuko nituzke, eragin handikoak izan baitira:

a) *Lebena: Idatzizko harremanak euskaraz eskatzea.* Hau behin-behingo irtenbidea da, hain zuzen ere, Euskal Herriko edozein erakunde publikotatik etornitako gaztelera hutsezko idazkiei sarrera ukatu eta jatorrizko erakundera itzultzean datza. Horretarako bide erraz bat erabili izan dute, erdal testua igorlearengana itzultzerakoan idazkiari honako hau edo antzerakoa eranstea:

«Harriturik geratu gara udal honetan ikusirik bidali deuskuzuen komunikazioa gaztelaniaz dagoela, jakingo ez baleuzue bezala Euskal Herriko mintzaira propioa EUSKARA dela.

Uste nahi dugu zuen egitate hori (erdaraz guri idaztearena) dela axolagabekeriaren ondorioz, baina ez fede txarrarena. Horretara bada, ITZULI egiten deutzuegu guri bidalitakoa; uste dugu berehalakoan euskaraz zuzenduko zaretela gugana.

Itzultzearen (errefusatzearen) neurri hau hartua du Udal honek komunikazioentzat, zeintzuentzat helden zaizkigun Euskal Herrian (zazpi probintzietan: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia, Lapurdi eta Zuberoa) datutak. Beste edozein komunikazio, Euskal Herrikan kanpo datatua datorrena, ontzat hartua izango du Udal honek, ezelango traba linguistikorik gabe.

Jainerazirik bada errefusatzearen zergatia, agurtzen zaituztegu «Munitibarreko Udala».

b) Bigarrena: «Euskararen erabileraren udal ordenantzak gertatzea, udal plenoak ornaturik ezartzeko; horrela, euskarari administrazioan lekua egiteak hainbat arlo ukitzen ditueneguz, udaletxe barruko bizimodu osoa zein herrikoa bideratuko duen legeria aproposari bideak eginez. Eranskizun gisa eskaintzen dizuet eredu bat.

Bi urrats hauek, egia esan, oso garrantzitsuak gertatzen ari dira euskararen alde euskaldunok daramagun burrukan, besterik beste, honakook lortzeko lagunbide gertatu direlako.

1a) Euskara dugula Euskal Herriko Nazio hizkuntza bakarra ageriko egitean, gaztelera bigarren mailan, dagokion bezala, jartzzea.

2a) Euskara hutsean bizitzea ez dela amets hutsa erakusten dute (gutxienez, udal administrazioari dagokionean) eta hori ekonomia-baliabideetan estu eta larri ibili ohi diren udal txikiak direlarik, jendea euskara baloratu eta erabiltzera bultzatzeko bide oso egoki bihurtzen direla.

3a) Horrek ezinbesteko bihurtzen du alderdi politikoen ordezkari diren zinegotziak euskaldun izatea zein udal txikietako

administrazio osoaren erantzule nagusi diren idazkariak ere euskaldun alfabetatu izatea.

4a) Udal mugarte horietara inor hurbilduz gero, inolazko bildurrik gabe erabili ahal izango du euskara, erdararekin topo egiteko arriskurik gabe. Horrela, gure euskararen bizitzarako ezinbesteko ditugun hizkuntz gune elebakarrak agertuko zaizkigu edo eta indartuko.

5a) Bide batez, administrazioko hizkuntza sortu, bateratu eta indartzeko bide ere gertatzen ari dira hala diharduten udal horiek. Testuak euskara hutsean erabiltzekoak izanik, egokiago eta ulergarriago egiteko bideak bilatu beharra era ekarri dute. Hemen ezin da, (orain arteko testu elebidunetan bezala) gaztelera «itsuaurreko» gisa erabili; horrek, bestalde, itzulpenak baztertzea eta sorketak ugaritzea ere ekarri du.

6a) Euskal Herri osoko Administrazioa euskalduntzeko tresna baliagarri ere gertatu dira, erdara hutsezko idazkiei uko egitera-koan. Euskararen etsarik gogorenetarikoak ditugun alderdi sozialistekoen ardurapeko diren zenbait sailetako arduradunek ere, halako udalekin harreman idatziak izaterakoan, idazkiak euskaraz bidaldu beharrean aurkitu izan dira. Arduragabekeria zein ikusiezina zirela bide, orain arte, gaztelera hutsean egin izan diren zenbait idatzizko harreman, zeharo aldatzea lortu dute.

Aspaldidanik indarrean dugun Euskararen Erabilerarako Legeak aginduz urteetan lortu izan ez duena, urtebeteko epe laburrean lortu dute udalok, bultzada handia eman diotelarik (ernegaldi biziak sorturik izan bada ere) ahoz, bahinik behin, aldarrikatzen zen elebitasunari, orain ez baita inor halako udaletara ezer gaztelera hutsean bidaltzen ausartzen. Azken unean jakin dudanez, Bizkaiko Gobernadoreak berak ere itzultzaleren bat edo itzultzerbitzuren bat hartu behar izan du, udaletako erabakiez jabetzeko.

4. Legeak jarritako oztopoak

Euskara hutsean bizitzeko erabaki horrek, alabaina, oztopo handiak ekarri dizkiei udalei, batez ere Euskal Herrian benetako

agintaritza eskutan duten Goberbadore Zibilen aldetik. Hauek hainbat errekurtsio jarri dizkiete Udalei, administrazioko testu guztiak gaztelerara itzulerazi nahiean. Legeen kontrakoa omen da euskara hutsean aritzea eta, noski, indarrik gabeak hala hartutako erabaki guztiak.

Gobernadore Zibilen bidegabekeria eta gogorkeria horrek, egia esan, nahiko erantzun motela jaso izan du alderdi politiko abertzaleen aldetik, ez baitute euskara hutsean bizi nahi duten udalen alde aurpegirik eman.

Une honetan, Udal horiek Gobernadore Zibilekin tirabira bizian dihardute, alkateek auzibidezko mehatxuak jaso dituztelarik. Baina, gogorki diraute, lehenago, Madriletik idazkari erdaldunak ezarri nahi izan zituztenean bezala, euskararen aldeko bideari irmoki eutsiz. Ez bedi gerta, idazkarien kasuan gertatua, une honetan lehen eskatzen ziren baldintzak (besterik beste, euskaldun alfabetatu izatea) alde utzirik erdaldunak hartzen ari baitira zenbait alkate!

Gobernadoreen errekurtsio horiek jartzea zela eta aurkako manifestaldiak egin ziren Urriaren 22an, Udaletako ordezkariak eta Euskal Herrian Euskaraz taldekoek bultzaturik, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan (Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñean) bertako Gobernu Zibilen Egoitzen aurrean. Jendetza eta oihartzun handirik izan ez batzuten ere (Hauteskunde garaia zelako ote?) egintza garrantzitsutzat jotekoak ditugu.

Bilbon izandako manifestaldian, «Euskal Herrian Euskaraz», Euskarari errekurtsorik ez, «Ez dugu amore emango» eta antzerakoak aldarrikatu ziren kalerik kale, katea luzea osotuz eginiko ibilaldian zehar zein Gobernu Zibilen Egoitzaren ataurrean eginiko egonaldian. Era berean, honako idazki hau banatu zen eta Gobernadoreari eman:

«Herri batek, bere lurraldean bere hizkuntza bizitzeko aukera izatea ez da pribilegioa, eta horren lekuko dira gure herria zatiturik duten estatu frantses eta espainolean bizi diren herrien egoera. Herri frantsesak beren lurraldean frantsesez bizitzeko duen aukera, edo herri espainolak bere lurraldean gazteleraz bizitzeko duena,

moralki, politikoki eta legalki uka ezina izateaz gain, onartu egiten dugu.

Giza-eskubideen oinarrian dagoen aukera legal eta politiko hau, munduko herri guztiei zor zaie, legeak guztientzat berdinak diren neurrian, eta diskriminaziorik bideratu nahi ez bada. Eta horixe da euskaldunok Euskal Herrirako eskatzen duguna, eta besterik ez.

Euskal Herria, herria denik inork ez du ukatzen, historikoki, kulturalki eta politikoki komunitate diferentziatua izan bait da mendeetan zehar, nahiz eta zapaldua, txikitua edo menperatua izan. Gauzak horrela, frantses eta espainol herriei onartzen zaizkien eta dizkiegun eskubide berberak bizitzeko eta herri gisara garatzeko aukera legala eta politikoa izatea.

Baina gaurko marko juridiko politikoak, Konstituzio espainolak eta ondoren garatu diren Gernikako Estatutoak eta Amejoramentuak, desberdinak badira ere, printzipiozko eskubide hau ukatu egiten diote Euskal Herriari. Gure herrian gaztelera hutsez pertsonalki eta kolektiboki bizitzea posible eta legala den bitartean, euskara hutsez bizitzea ezinezkoa izatez gain, ilegalta bait da.

Horren lekuko gara, herri elebakar bihurtzeko aukera egin dugunok, eta herri elebakar hauekiko elkartasuna adierazi dugunok, Gobernu Zibiletatik hori jakin adierazi digute. Hala eta guztiz ere, Euskal Herriari bere lurraldean euskaraz bizitzeko dagokion eskubidearen aurrean ez dugu amore emango, legediaren arauera ilegalta izan arren.

Ez dugu pribilegioirik nahi, Euskal Herrian euskaraz bizitzea baizik, eta aukera hori eskeiniko digun legeri berria eskuratu arte ez dugu pakerik emango» (Herri Elebakarrak eta EHE).

7. Ondorioak

Ikusten denez, euskaldunoi ukatu egiten zaigu administrazioa euskara hutsean garatzea, idazkiek balio ofizialik izatekotan, gaztelera erabiltzera behartzen gaituztelarik.

Hemengook Madrileko legeak betetzera behartzen gaituzte eta, bien bitartean, beraiek ez dituzte hemengoak onartzen, ez baitute administrazio estatalean elebitasunik erabiltzen.

Bidegabekeria honen aurka, «legezkoa» ez bada ere «berezko» eskubide osoa dugunez, elebakar izan nahi duten udalei laguntza eman behar diegu eta elkartasuna agertu, bide horretatik etsipenik gabe jarrai dezaten, euskarak, hizkuntz gune elebar horiek ezarrita ere, iluna duelako etorkizuna.

Amaitzeko, udalei euskara salbabidean jartzeko neurri egokiak har ditzatela eskatuko nieke eta bateren batek bide elebar horretatik ibili nahi baldin badu, hona hemen jarraian halako batek ezarritako *Euskararen Erabileraren Udal Ordenantza* bat. Aurtengo Ekainaren 22ko zenbakian argitaratu ziren halako bi Bizkaiako Egunkari Ofizialean. Benetako argia eskaintzen digute udal elebakar baten nondik norako ihardunari buruz.

Patxi Uribarren

Munitibarko Udala

IRAGARKIA

Udal Batzar Osoak, 1989ko apirilaren 14an egindako Osoko Bilkuran, «Euskararen Erabileraren Udal Ordenantza» onartu zuen, testualki ondorengoa delarik:

EUSKARAREN ERABILERAREN UDAL ORDENANTZA

SARRERA

Euskara da Euskal Herriko nazio-hizkuntza, eta era berean, Munitibarko Udala eta Udalerriko hizkuntza ofiziala.

Munitibarko Udalak, Ordenantza honekin,

tresna egokia bereganatzen du, euskararen defentsaren bidetik jarraitzeko. Ordenantza honek «Euskararen Erabileraren Sustapen eta Normalizatorako Udal Ordenantza»ren forma juridikoa hartzen du.

Bestalde, hainbat eta hainbat urtetan jasanduen zokoratze-prozesuaren ondorioz, euskara normaltasun sozialaren egoeratik urrun dago. Hortaz, euskararen normaltasuna osoa lortzeko helburuz, lurraldetasunezko erizpidea emango dio Munitibarko Udalak euskararen erabilpenari, euskara Munitibarko Udala ihardueran eta udalerrian hizkuntza ofizial bakarra bihurtuz.